

**EUROPAR HERRIETAKO OINARRIKO KRISTAU ELKAR-
TEAREN III. KONGRESUA
(Bilbon, Urriaren 8tik 11ra)**

Aldizkari honen ale hau kaleratzen den une honetan burutzen ari da Euskal Herrian zehar II. EUSKAL MUNDU BATZARRA egintza ezberdin ugarien bidez gure Herriari, kulturari, hizkuntzari eta abarri buruz hausnarketa egiteko bide oparo eskainiz.

Era berean, aurtengo Urrian, beste mota bateko batzar garrantzitsu bat ere burutuko da Euskadin (Bilbon), hain zuzen ere *Europar Herrietako Oinarriko Kristau Elkartearen III. Kongresua* deritzona.

Egun batzutan zehar (Urriaren 8tik 11ra) Europan zehar sakabanaturik aurkitzen diren Oinarriko Kristau Elkartek batuko dira, eguneroko kristau-bizitzan daramaten bidea aztertzeke zein nola bizi daitekeen itzaropenez kristau mezua deskristauturik ageri zaigun Europa honetan eztabaidatzeko.

Kongresu horretarako, talde lanetan aztertzeke hainbat txosten prestatu dira, kristau talde desberdinetako kideek bakarka zein taldeka lanean hausnartuak izan ondoren batzaraldian zehar eztabaidatuak izango direlarik.

Egitaraua eta eztabaidatuko diren txostenak aldeztatik gertatuak izan direnez, honako orriotan biltzen ditut, laburkiro, zuek ere ezagut ditzazuen:

Egitaraua:

- Urriak 8: Ostegun: a) Kanpotik etortzeke direnei harrera.
b) Hitzaren ospakizuna partehartzaileen artean.
- 9: Ostirala: Txostenen irakurketa eta ondoko eztabaida.
- 10: Larunbata: a) goizez: Hizkuntza ezberdinen arabera taldeka elkartuz, proposamenak aurkeztea.
b) arratsaldeztan: 6etan bilketa Gernikan.

- 11: Igandea: a) goizez Bilera Nagusia: proposamenak aldarrikatzea. Sarrera irekia Kristau Elkartetako taldekide guztici.
b) arratsaldean Elkartasunezko bazkaria eta solasaldia Txurdinagako polikiroldegian.

Txostenak:

- 1) Ebanjelioa eta Europan diren zapalkuntz tresneri berriak
- 2) Herrien askapen bideetatik bakca eraikitzea
- 3) Nederland - Euskadi
- 4) Oinarriko eliza, eskubide kolektiboen alde, Herrien Europaren alde
- 5) Baztarte eta pobretasuna Europan (laugarren mundua)
- 6) Europako Elizen irudi berria.

Kongresu horretan eztabaidatuko diren txostenak eta aztergaiak ugarriak izanik, une honetan gure artean pil-pil eztabaidan ari den gaia aztertzen duen txosten bat eskaini nahi dizuet jarraian. Bestalde, txosten guztiak egitura bakar baten inguruan eratuak izan direnez Kongresu horren nondik norakoak eta lanerako era ezagutzeko bide izan dezakegu:

**OINARRIKO ELIZA, ESKUBIDE KOLEKTIBOEN ALDE,
HERRIEN EUROPAREN ALDE**

1. Planteamendu orokorra

Bere bera du Ebanjelioaren mezuak izaera unibertsala -katolikotasuna- eta herri guztietan eta bakoitzean txertatzeko -zarpena- funtsezko premia. Bai pertsonak, bai giza taldeak Ebanjelio berbera onartzen deituak dira eta berdenboran kultur nortasun ezberdinak adierazten dituzten hizkuntza ezberdinetan eta ezberdinen bidez Fedeari erantzutera.

Ebanjelioaren mezuak ez luke alde bikoitz hori, hots, unibertsaltasunarena eta konkretutasunarena, munduarekiko ikuskera zehatz eta bereizle baten finkatutako doktrina abstraktu, filosofia ala ideologia hutsa baldin balitz. Horrexegatik, Eliza, mezu horren ezaugarri delarik, «gorputz biziarekin» konparatu ohi da Bibliaren esanetan eta, beraz, ezberdintasuna dela eta batasuna gauzatu ahal duten soin atal askoz gorputzua. Izan ere, «gorputz biziaren» batasuna osagaien ezberdintasunetik bait dator.

Horrelaxe uler daiteke, soilik, gizateria osoari iragarritako Ebanjelioaren indar berritzailea, gizateria giza errealitateen multzo anizkor bezala hartzen dugun heinean eta ez modu kontzeptual hutsez.

Halaz ere, premisa hauek, Eliza katolikuen historian zehar, gatazka-atsuak gertatu dira praktikan. Nahiz pertsonetan nahiz herrietan, zapuztu orde batzuek eta besteak errespetaruz, murgildu ahal izateko duen gaitasunagatik, Ebanjelioa unibertsala dela errepikatu ohi da, baina ba da atrazoi bide horiek galazten eta gudukatzen dituen joerarik. Ebanjelioa unibertsala de-

naren ustea esanahi «unibertsalistan» ulertu nahi izan da Bide horretatik bosterearen estratergiei doazkien doktrinaren osaketa eta jarrera erdirakoen abiabidea piztu egin dira.

Horrela, bada, eta orain arte bederen, mundua menderatu duten indarretatik eratorritako pentsamoldeen eraginpean igorri nahi izan da Ebanjelioa; hau da, mendebal zibilizazioa deitua denetik abiatuz, eta Eliza katolikuari dagokionez, erdigunea «Erromako Kuriaren» inguruan kokatu behar dugularik.

Mezu ebanjelikoaren eta beraren edukiaren murrizketa, ekialdeko elizak tradizionalki salatua hain zuzen, «mixio lurraldeetara» Berri Ona iragartera «bidalitakoen», mendebal-erromatar pentsamoldean heziak, noski, eta hizkuntza eta presio politiko-kultural arrotzak onartzeari uko egiten dioten «konbertitu autoktonoen» arteko etengabeko eztabaidetan ageri izan ohi da nabarmenean.

Azken urte hauetan berpiztu egin da arazoa, baina, bestalde, gogoeta esanguratsua iritsi da, zenbait aspektu autokritikoz agian, Erromako eliztar ierarkiaren gailurreraino. Begira nola Pio XII, bezain Aita Santu zentralista eta autoritarioak zer zioen: «Eliza munduko herri guztietan bizi eta garatzen da eta munduko herri guztiek laguntzen diote beraren bizitza eta garapenari (...). Eliza ez dago nazioen gainetik (...). Kristo gizonen tartean izan zen bezalaxe, halaxe Eliza, zeinetan Kristok bizirik dirauen, herrien tartean dago (...). Elizak onartu egiten du bere baitan egiaz gizakorra den guztiaren betetasuna (...). Horrelaxe egi bilakatzen da, gaurko elizan, San Agustinek «Jainkoaren Hiria» liburuan guztietako gizasemez biltzen du lurrean erromes doan elkarre; ez da kezkatzen ohituretan, legetan, erakundeetan dauden ezberdintasunagatik; ez du horietatik ezer ezabatzen ez deusztatzen, gorde eta zaindu baizik» (Gabonetako Irrati mezua, AAS 38 (1946) 18-21). Eliztar direnek oro, beraien jatorri eta hizkuntza dena delakoa izan, jakin bezate eskubide berdinak dituztela. Berdintasun arau horiek egi bihurtzeko, pertsona aukeratuak hautatu ohi dira, bertakoen arteak, gotzain eta apaiz autoktonoen kopurua gehiagotuz joan dadin» (Summi Pontificatus, AAS 31 (1939) 429).

Hildo beretik, zera zioen aipatu Aita Santuak: «Oinarri moralen gain funkarutako orduen berriaren eremuan, ezin daitezke zanpatu gutxiengo nazionalen kultur eta hizkuntz berezitasunak» (Eguberrietako Irrati mezua, AAS 47 (1955) 22-23 or.) Hitzaldi beretan Pio XXI.k eskubide nazionalari buruz ihardun zuen, zera zehaztuz, hots, «bizitza nazionala, berez, talde jakin baten propio eta bereizgarri diren zibilizazio balioen multzo eraginkorra da, ispirituzko batasunaren lokarri bilakatzen delarik. Eta bizitza honek, berdenboran, gizateria osoaren bizitza joritu egiten du eskaintzen duen elkarkidetasuna dela medio».

Muin mumean, bada, nazio bizitza zerbait ezpolitikoa da (...) Nazio bizitza ez zen bilakatu herrien elkartearen deuseztapen eragile, harik eta helburu

politikoetarako bitarteko izaten hasi arte; hau da, Estatu menperatzaile eta zentralistak nazionalitatea hedakunde indarrerako oinarri bihurtu zuen arte. Orduantxe sortu zen Estatu nazionalista, lehiakidetasunen hazi eta desakortasunen pizgarri(...) Batasunerako jokabide desbideratua litzateke edo, agian, saldukeriatzat hartu beharko genuke, beraien ondasun gorenak defendatzeko adina indar ez daukaten gutxiengo etnikoak interes nazionalisten, hots, Estatuaren, interesen menpe jartzea(...) Horrela ari liratekeenek ez lukete konfiantzarik merezi eta ez litzateke zintzoki ihardungo, ondoren eta beraien interes propioek horretara beharturik, eskubidearekiko errespetua(...) eskatuko baldin balukete». (id. 25-25 orr.)

Ikuspegi berdinean lerrotu behar dira Juan XXIIIren irakatsiak «Pacem in terris» enziklikakoak bereziki eta halaber Vaticano II. kontzilioakoak. Honenek, bada, besteak beste, zera aldarrikatu zuen, «Elizak ez duela ezerein herriko ondasun tenporaletatik ezer hartzen, aitzitik, herri bakoitzaren nortasuna adierazten duten gaitasun, joritasun eta ohiturak onartu eta bultzatu egiten dituela(...) Katolikotasunaren izenean, hala eliza partikularrek hala beraien tradizioek, batasun elizarraren baitan, legezko kokagunea dute» (Lumen gentium, 2,13).

Eta gehiago: «Eliza, Jainkoak burututako salbamen eta bizitza misterioa guztiei iragarri ahal izateko, gizatalde guztietan txertatu behar da, Kristo, gizakundearen bidez, berarekin bizi izan ziren gizasemeen bizimolde sozial eta kulturalekin bat etorri zen bezalaxe» (Ad Gentes, 2,10). «Kristauak beraien aberriaren eremu sozial eta kulturalcan eta tradizio nazionalen arabera adierazi behar dute bizitz berrikuntza hori» (id. 3,21). «Jainkoaren hitzaren eraginez, mundu guztian, sortutako eliza autoktono partikularrak beraien baliabide propioz hazi eta heldutasunera iritsi behar dute, herriarekin lotutako ierarkia edukiz eta bizitza erabat kristaua eramateko ahalbide egokiz omittua (Id. 3,6). «Giza talde jakin batetan eliza ezartzea burututzat eman daiteke eliztarren batzarrea, gizarte bizitzan errotua eta ingurumariako kulturaz osatua, egonkortasunez eta tinkotasunez beterik ageri denean» (Id. 3,19).

Beste zenbait baieztapen, oraintsukoagoak gainera, aipa dezakegu, hala nola Juan Pablo II.k UNESCO-n egindako hitzaldia (Paris, 1980.ko ekainaren 2.); eliza partikularren eta nazio eta kultur nortasunaren arteko lotura azpimarratzen du elizaren bizitza bideratzeko ontzi komunikatu beharrezko bezala.

Aipatutako adierazpenak aski zaizkigu Eliza Ierarkikoarengan, teoriaren alorrean bederen, mezu ebanjelikoaren unibertsaltasunaren mamia eta herri bakoitzean duen adierazpide konkretua, ortodoxia osoz, elkarlotzeko adina besteko pentsaera ba dela baieztatu hal izateko.

Halaz ere, gai honen edukia egoki aztertzeko, «herria» hitzaren alkatzua zehaztu beharko genuke, Eliza unibertsalaren emariaren hartzaile eta zuzpertzaille bera baita. Zer da, izan, herria? Zenbat eta zeintzu dira pluralta-

sunaren subjeto diren herri ezberdinak?

Erantzun bat zera litzateke, estatu berezi bezala eraikitakoek administratutako lurraldeetan finkatutako giza komunitateek osotutako herri ezberdinak, hauei eliza lokal berezituak dagozkielarik. Horrela, Frantziako edo Frantziari den Eliza ala Espainiako edo Espainiari den Eliza edo Jainkoaren Herria genituzke.

Honela berrikitan sortutako eliz erakundeek, Gotzaien Batzarreak kasurako, estatuaren eremuan dute egitura eta jokabide hesparrua, herri berezituaren adierazlea estatua balitz bezala.

Halabaina, errealitatea molde eta identifikapen hauetatik arras ezberdina da. Izan ere, Europako textuinguruan, ez dago parekotasunik benetako herri-geure egunetara arte iraun eta nortasun historiko propioaren adierazpen diren kultura eta hizkuntzaren jabe direnak, hain zuzen ere- eta azken gizaldeen-tako prozesu industrialaren eraginez gure kontinenteko fase ekonomiko-sozialean garaile atera diren botereengandik sortutako estatuaren artean.

Honela, bada, estatua boteretsuek beraien interesen faboretan finkatu duten zenbait faktoreren ondorioa da. Ez da, inolaz ere, historiaren joanean, lurralde batetan, elkarrekiko lokarri naturalak, bere hizkuntza, kultura eta beste taldeen aurrean ezberdin bezala aitortzeko adinako lotura sozial sortuz elkartuz joan diren pertsona taldearen ondorena. Bestela esateko, herri-estatu modernoak, Europako hesparruan, ez dagozko herri-nazioari.

Errealitate hauxe da, hain zuzen, Europako historia denborakideko istilu-
-gerrateak barne- kausarik lehenena Gaur egun, gure kontinenteko gunerik beroena arazo nazionala dute funts funtsean, botere dominatzaileek gidatutako «nazionalismo estatalistaren» bekoz beko dagoena hain zuzen.

Oraindik orain, Europaren barnean, konpongabeko arazo nazionalak diraute milioika biztanleren eskubide kolektiboak dagozkienak. Eskubide «ahantziak» edo eta erabat zanpatuak, botere estatalak beraien esku dituztenen aldetik eta halaber botere horiek barreiatutako ideologiaz «toxikatutako» gizartearen aldetik.

Ezarrutako ordenu hau onartzean Eliza instituzionalak erakusten duen mimetismoa grabea da, batez ere gogoratu ditugun irakatsiak eta doktrina ofiziala kontutan hartzen baditugu. Eliza instituzionalaren jarrera mezu ebanjelikoaren «berritasunaren» kontrakoa da. Jesukristoren eleiza gizon guztiekin eta guztietan guztia egin behar baita, ororen ezberdintasunak onartuz, horrela guztiek, bereizketarik gabe, aldaketa eta salbamenaren ezaugarri bilaka daitezten.

Botere estatalek baztertu edo minorizatutako herrietako eliza lokalek, kasu batzuetan soilik, aitortzen dute zerbitzatu behar dituzten herrien nortasunaren subjeto diren herri ezberdinak?

sun herritarra. Nekezago erakutsi ohi da aitopen hori eliza lokal ofizialduaren aurrean, esan nahi baita, tankera eta eremu estatalista dutenekin enfrentamendu nabarira iritsiz. Horrela, bada, nahitaezko asimilapen politikaren menpe bizi behar duten herririk gehienek ez dute hartzen Eliza instituzionalarengandik, ebanjelio eskubidez, itxaron zezaketan erantzunik. Areago, normalki, Eliza instituzionala, Europan, egokitu eta lehiakidetu egin da gure egunetara arte bederen gobernu estatalek inposatutako ordenuarekin.

2.- Herrien Europaren aldeko aukera

Kristau elkarte herritarren komunitateen ezaugarrietako bat zera da, gure gizarteak pairatzen dituen zapalketa moeta guztietatiko «askapen» jokatubideen argitan Ebanjelioa berriakurtzea. Izatez, «herriarengan» txertatutako elkarteak dira eta, beraz, «herriaren» eskubideen defendatzaileak.

Elkarteok alor honetan burututako lana aztertzen baldin badugu, zera ikus dezakegu, gehienetan giza eskubide indibidualen defentsa askatzailea azpimarratzen dutela ONU-ren Giza Eskubideen aldeko Adierazpen Orokorrean eta antzerakoetan oinarrituz. Giza sail esplotatuen defentsa ere azpimarratzen dute, justizia sozialaren printzipioen elaborapencan lortutako aurreapenetan finkatuz horretarako.

Baina gutxi dira herrien eskubide kolektiboen defentsan ari diren basoko kristau elkarteak. Ameriketako indioek maiz erabilitako axioma aipa dezagun hemen: «Pertsona eta klase bezala pairatzen dugun zapalketa baino funtsezkoagoa dugu herri bezala jasan behar duguna».

Horrela, bada, zapalketa moeta guztietatiko «askapenaren» planteamendua orokorrean, herririk herri gisa eskuratu beharreko askapena funtsezko helburua da. Eta gogoratu dugunez, Europako eremuari dagokionez, finkatutako estatuetatik gehienetan eginkizun dago.

Kristau elkarte herritar europar gehientsuek herrien eskubide kolektiboen alde ez lerratzea pairatu behar ditugun zenbait alienazioren erru da zalantzarik gabe. Ikastetxeetan hasi eta propaganda ofizialean zehar (aberriaren-estatuaren- batasuna) eta komunikabideen kate handimandien bidez gizenzen dira alienazio guzti horiek.

Halaz ere, herriek herri gisa jasaten duten zapalketa, «askapen» planteamenduan lehenengotariko kezka izan behar luke. Beraz izatean minorizatutako herria, ahalbide guztia murriztuta eta bizi eremu guztiak gutxiagoz daturatzen dituen herria dugu. Eta eskubide sozial eta indibidualak, ezinbestean, radikalki ukituak eta gutxituak daude.

Ezin dute erabili, besteak beste, justiziaz dagokienez, modu subiranoz eta hala nahi izanez gero, independentziaren bidetik beraien nahikundeak eratzeko eskubide kolektiboa. Ondorioz, herriaren baitan sor daitezkeen klase antagonismoak iharduera negatiboa izan behar ezinbestean, zapalketa na-

zionalaz kutsaturik bait daude antagonismo horiek, herri izaera bera baita zapalduta dagoena.

Herrioi, bestalde, bai legez edo bai edonolako inposaketa hutsez, eskubide indibidualen erabilera bera ere ukatu egiten zaie, hala nola beraien hizkuntzaz eta kulturaz baliatzea, estatuarenak ez bezalakoak baldin badira. Hizkuntza eta kultura horien erabilpena, oro har, maila indibidualean permititua denaren, ez da maila publikorako onartzen nahiz eta, zenbait kasutan, onarpen ofizialkidea eduki, hau da, hedadura estataleko hizkuntza eta kulturei kalterik egiten ez dien adinekoa. Elebitasun kolektibo inposatua da, gehienik jota, finkatutako estatuetakoa gobernuak toleratzen dutena. Horregatik, eskubide indibidualak ere iharduera negatiboa izan behar goragoko mailako hiritar bailira jokatzeko dutenen zapalketaz narraituta bait daude. Gizaki libreaken osotasuna beraiek soilik baluteke bezala ari ohi dira, herri guztiek, salbuespenik gabe, duten eskubidea izanagatik.

Europako (eta Europatik kanpoko) herri askoren izatea ito egiten duten egoera hauen sakontasuna, konplexutasuna eta hedadura «askapen» jokabideetatik ahalegintzen diren kristau elkarte herritarren azterketa eta jarrera garbi eta ausarten parte izan behar lukete ezinbestean. Helburua zera litzateke, kendu egin zaie protagonismo historikoa herri zapalduoi itzultzen saiatzea, hori gabe, Europan barnean, justizian oinarritutako bakerako eta hiritar guztien berdintasun errealean finkatutako demokraziarako baldintzak sortaraztea galerazi egiten baitzaie.

Aitortu egin behar dugu herrien izatearen defentsa, funtsezko garrantzia duenaren, zaila dela planteatzea berehala aurkako erreakzioak sorteraiz gabe. Europan nagusi den sistema estruktural, ideologiko eta politikari eusten dion ikusmoldetik, nahiz eskubitar nahiz ezkertiar izan, herrien izateari buruzko arazoak, hitzaren esanahi hertsian ulertutako arazo nazionalak, anakroniko, arzerakoi, itzulezinekoei garaici lotuak bezala epaitzen dira. Areago, arazoa nolabait somatzen diren direnek ertzerakoi, nahasgarri edo funts gabekoak omen, kontutan hartzen baldin baditugu.

Baina, objetiboki, ba al dago arrazoi indartsuagorik herrien izatearen defentsa lehentasunezko arazoa ez dela pentsatzeko? Herria, pertsona bezalaxe, bere izaeraz jabetuz gero ala izaera hori murriztuz gero, bere existentziarekin zerikusia duen ezin arlo planteiatzeko ezinduta dago.

Premisa honetatik abiatuz etorkizunari buruz, eta batez ere etorkizun hobeari, aurrerapenari, egiazko berdintasunei, demokrazia irekiei, hitz batez, «askapenari» buruz mintza gaitzke. Gaur egun nagusi den sistemaren alternatiba posible bezala etorkizun hori ikusiko bagenu bederen, Europarako.

Gure ustez, ez du merezi mendebaldeko estatu europarrak aurkezten diguten etorkizunagatik, hots, boteretsuek boteretsuentzat gauzatutako «batasun europarragatik» burrukatzerik. Izan ere, holamoduzko etorkizuna gaur

egun mundua bi blokeran banatzen duen Europaren ikusmolde merkataria eta konpetitiboaren gain finkatzen da. Eduki ekonomikoa bereziki duten zerreginen arabera hartzen dituzte pertsonak, hiritar europarrak ongizatearen eta askatasun zabalagoen aitzakipean, geroz eta gehiago manipulatu eta kontrolatuko dituzten botereen zerbitzutan jartzen dituzte.

Guzti hori jokamolde nabari nabariaren barne doa, noski. Industrialtze europarretik sortu eta finkatutako estatu berezia irtenbiderik gabeko atakan dago. Bizi dugun aro postindustrialak ikuspegi, egitura eta eremu berriak sortaraztera behartzen gaitu, oraingo estatuek, beraien muga eta zatiketekin, ez bait digute balio. Eta ez digu balio, printzipioz, estatu horien bereizgarri izanik, hiritar europarren nortasun tajutzen duen hizkuntza eta kultura pilaok eta aniztasunak.

Ezberdintasunak ezabatu ondoren bizimolde europarra maila guztietan standarizatuko duen abiabidearen barne murgiltzera behartzen gaituen etorkizuna besterik ezin izan. Mendebaldeko munduaren jaun eta jabe denarengandik sortutako «zibilizazioa» jarraitu beharrean gaude. Gure *izatea* gehiago *edukitze* hipotetiko baten menpe jarri beharrean gaude.

Etorkizun latz honen aurrean, oraingoz zenbait erretitzentzia eta egoismo estatalen kausaz geldiarazia, «erresistentziaren» alternatiba baino ez dago; «erresistentzia» askatzailea, noski, erresistentzia askatzaile guztiak bezalaxe, ordenu czarria defendatzen dutenen ikuspegitik, momentuz behintzat, negatiboa eta asaldua bezala eta, agian, antiaurrerakoa bezala epaituko dena.

Europako etorkizunaren planteamendu alternatiboa *izatea* eta hiritar europarren berberatasuna, egunerik egunera areagotuz doan «opresioaren» aurrean, defendatzea eta indarbarritzea ahalbidetuko duten baldintzen erakuntzan jarri behar dugu. «Ekologia» orokorra litzateke hau, naturaren babesa eta zaingoa baino zerbait gehiago dena hain zuzen. Kontua zera da, giza errekurtsio eta gaitasunak, interkomunikazioak eragindako solidaritate efektiboa, mugarik gabeko demokrazia eta goragokoak omen diren interesengatik bortxatu gabeko askatasunak garatuko lituzketen errespetuzko harremanak indarberritzea.

Pertsonak eta herriak, egiaz, helburu prioritario bilakatzen diren heinean, europar batasuna, mendebal aldera mugatuko ez dena, beste oinarri baten gain buruko da. Ez da izango Estatuon Europa, baizik giza «berdintasunerako» ezinbesteko baldintza den «ezberdintasunaren» inguruan elkartutako Pertsonen eta Herrien Europa.

Eskeintza alternatibo honen bidetik, «sistemarekiko alternatiboak» izanik, geroz eta ugariagoak diren *mugimenduek ekinbide honetan* murgildu behar dute, merezi duen langintza baita. Utopian ari den langintza suertatuko da, oraingoz, kristauok ere egi bihurtu behar dugun utopia izan ere.

Txosten honetan, «askapen» hitzak, gaur egun, gure ustez, duen alkan-tzuaren funtsezko parte diren arazoei buruz gogoeta bideak erakutsi besterik ez dugu egin. Begi bistan dago esperientzia oso konkretuetatik abiatuz zen-bait arazo seinlatu ditugula, idazki hau burutu dugunok, oro har, zanpatua den herri baten partaide izan behararen eguneroko errealitatea bizi baitugu. Guk, herriari eta geure herriari, herri gisa, zor zaien «askapenaren» alde egin dugu aukera.

Gure etorkizunari begira, beharrezko ikusten dugu gure historia mar-katutako duen eskubide kolektiboaren aldeko «iraultza» planteatzea, eskubide indibidualen eta sozialen aldeko iraultzek azken mendeetako historia marka-tu zuten bezalaxe. «Estatuen eta egitura zapaltzaileen garapen eta iraupenaren Europaren aurrez aurre «Herrien eta Nazio Errealen Europaren» antolabi-deak labur biltzen du izate europarraren etorkizuna. Aro postindustrialak taju-tu beharko lukeen «bizitza kalitatezko» etorkizuna.

Askatasuna inplikatzeko duen herrien «autodeterminazioarako» eskubidea, diskriminazioak eta neokolonialismoak gainditzea suposatzen duen «inde-pendentziarako» eskubidea... herri guztiek goza lezaketen «bizitza kalitatea-ren» paradigma dira eta kontrastsana badirudi ere horiek dira giza «batasun» kolektiboa bultzatzen duten eskubide kolektiboak.

Ikuspen honen barnean Elizak zeregin garrantzitsua du herri jatorrei dagozkien eliza lokalak berreraikitzeke, mezu ebanjeliko berritzailea zintzoki ispliatuko dutenek hain zuzen. Kristau elkarte herritarrak edo oinarrizkoak prozesu honen aintzindari izan beharko lukete.

Hona hemen txosten honetan proposatzen dugun apostua.

Jarraian txosteneko baieztapen nagusiei buruzko hainbat galdera egiten zaie Europako gainerako Oinarriko Kristau Elkartekoei (gainerako txostenetan egin ohi den bezala), arazo honi buruz duten ikuspegia zein beronen aurrean hartu ohi duten jokera, guztien aberastasunerako, ager dezaten.

Guk ere, harako «nazio-askapen» egoera larrian murgildurik bizi gare-nok, kristau izan edo izan ez, badugu bertan gairik ugari sakontzeko.

Sarritan, gure barruan argitzalpean edo laino artean bezala somatzen di-tugun zenbait gogoeta eta galdera argitasun ugari azalduz agiri zaizkigu txostenean zehar. Niri, behintzat, argibide gertatu zait.

Mania oso-osoan jasoteko, behar bada, behin eta berriro irakurri behar gogoko ditugun erroak azpimarratuz oso sakona eta tinkoa baitugu.

Patxi Urbarren